

XIV ERMUKO IMMIGRAZIO JARDUNALDIAK

**IMMIGRAZIOAREN ALDEKO ITUN SOZIALA EUSKADIN
ELKARBIZITZAREN ALDEKO GUZTION KONPROMISOA
FUNTSEZKO IDEIAK**

**DENON
ARDURA**

**INMIGRA-
ZIOAREN
ALDEKO ITUN
SOZIALA**

**ERMUA
2014**



EGITARAUA

Maiatzak 26 astelehena - 17:00- Emakumeen Topalekuan

HITZALDIA: "Emakume afrikarrak: sexu eta ugalkaeta eskubideak- Giza Eskubideak", Jeanne Rolande Dacogna Minkette-ren eskutik, Biltzen-ekoa.

BISITA GIDATUA ERAKUSKETARI: "Prebentzioa emakumeen sexu organoen erazketaren aurkako borrokan", Medicus Mundi-rena.

Maiatzak 27 asteartea

WORD-KAFEA: "Inmigrazioaren aldeko Itun Soziala", Ellacuria Fundazioak gidatua. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara - Ermuko Plazan.

Maiatzak 29 osteguna

ZINE-KLUBA: "El Rayo", Fran Araujo eta Ernesto de Nova-rena. *Ermua Antzokian - 20:30, Mudo-Drogot-en eskutik.*

Maiatzak 31 larunbata: KULTUR ARTEKO JAIA

Goizeko 11etatik aurrera, Ermuko Plazan.

- 11:00etan: Azoka multikulturalaren hasiera. Haurrentzako jokuak, Antxitxiketan-ekin
- 12:30etan: Kontzertua: "TWA TOUN" talde bereberearekin
- 14:00etan: Kultur-arte KO BAZKARI HERRIKOIA
- 16:30etan: PERKUSIO TAILERRA Mustapha Agharban-ekin
- 16:30etan: FUTBOL TXAPELKETA: "Rifeñoak", Afrikar selekzioa, "Latinoak" eta APFE-ko selekzioa
- 18:00etan: Kubako dantzak, "SIERRA MAESTRA" taldearekin
- 19:30etan: "BALLENA GURUMBÉ & MALIK DIAW", taldearen kontzertua

**Eta gainera: Hennazko tatuajeak, txirikorda afrikarrak, azkazalen margoketa kolonbiarra, idatzi zure izena arabieraz, Ermuko ikastetxeetan egindako hormirudia eta marrazkien erakusketa...*

Ekainak 3 asteartea

LIBURU AURKEZPENA "Partir para contar", Mahmud Traoré, egilearen eskutik. Senegaletik Espainiar Estatura, Ceutako hesitik pasatuz, ezagututako emigrazio bizipenak. 19:00 Liburutegian.

Ekainak 7 larunbata

LUIS GUITARRA kantautorearen kontzertua. 20:30etan Lobianon

**Jardunaldietan zehar, aurreiritzien eta arrazakeriaren inguruko "ARGI IBILI" ekimena egingo da Ermuko ikastetxeetako lehen hezkuntzako kurtsoetan.*

Antolatzaileak

Eguarbitza Misio Taldea, Komite Internazionalistak, Caritas, Herri Saharaiaren Lagunen Elkartea "Hagunia", Urko-Punta, Maishule, Ermuko Senegaldarren Elkartea ASER, Bizkaiko Maliarren Elkartea "Fasoden"

Laguntzaileak

Ermuko Ikastetxeak, Mudo-Drogot, Antxitxiketan, Udal Liburutegia, Fundación Ellacuría

Babeslea




Ayuntamiento de Ermua
Ermuko Udala



NONDIK NORAKOA ETA HELBURUAK

Eusko Jaurlaritzak 2012. urtean sustaturiko ekimena da. Helburua da euskal jendarteari aukera eskaintzea etorkinekin baterako elkarbizitzaren aldeko oinarritzko konpromisoa bere egiteko, gizatasunaren eta justiziaren printzipio eta balio unibertsalistetan oinarrituta.

Jendarte eta erakunde mailako akordio zabala lortu nahi dugu, jendartearen gero eta aniztasun handiagoa aukeraren ikuspegitik kudeatzea ahalbidetuko duena, eta, horretarako, ahalik eta pertsona eta erakunde gehienek parte hartzea nahi dugu.



EUSKAL JENDARTE ARE PLURALAGOA

Euskadi beti izan da herrialde plurala; historia osoan, hainbat erlijio, hizkuntza eta kultura bizi izan dira aldi berean bertan. Aniztasuna gure historiaren funtsezko ezaugarria da, baita gure nortasun kolektiboarena ere, eta jendarte modernoen bereizgarria. Zalantzarik gabe, biharko Euskadi oraingoa baino anitzagoa izango da.

Etorkinak ez dira “Bestea Gure artean”. Izan ere, dagoeneko etorkizuneko euskal “Geu”-ren zati baitira. Gizalegezko eta gutxieneko “geu” bat eraiki nahi dugu, denon esparru bat, non nortasun ugari uztartu ahal izango diren eta denok izango dugun partaidetzarako eskubidea.





GIZA ESKUBIDEAK, HERRITARTASUN INKLUSIBOA

Itun honen asmo nagusia da jendarte gisa herritartasun plural eta inklusiborantz joatea, non pertsona guztion funtsezko askatasun, eskubide eta betebeharrak denon egoiliar izaeran oinarrituko diren, ez nazional edo atzerritarren arteko bereizketan.

Etorkinen eta bertakoen eskubide eta betebeharren parekotasuna immigrazioaren fenomenoari gizatasunetik eta justiziatik abiatuta heltzea dakar. Geure oinarriak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ikuspegia -pertsona guztion ondarea-, berdintasun ideala diskriminazio ezaren printzipioa dira, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak eta Europako Batasuneko Ordenamendu Juridikoak ere aitortua.

Integrazioa ezin da gauzatu pertsona guztion eskubideen aitortzarik eta bermerik gabe. Berdintasun printzipioa aplikatzeak etorkinekiko edozein ekintza diskriminatzaile prebenitzeko, debekatzeko eta desagerrarazteko konpromisoa eskatzen du.

IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA, AUKERA-LEIHOA EUSKADIRENTZAT

Immigrazioak ondorio ekonomiko positiboak ekartzen dizkie jendarte hartzaileei. Biztanleria aktiboaren eta jarduera femeninoaren tasaren hazkundera bultzatzen du, ekarpena egiten die diru-kutxa publikoei zuzeneko eta zeharkako zergen eta gizarte-segurantzarekiko kotizazioen bidez, kontsumoaren hazkundera bultzatu eta enpresa-ekimen berriak sortzen ditu.

Dudarik gabe, jendarte anitzenak oparoenak ere izaten dira. Berdintasun eta aitortzaren testuinguruan aniztasunaren kudeaketa eta egokitzapen onak erakargarria ere bilakatzen du gure jendarte nazioarteko talentuarentzat.

EMAKUMEAK ETA IMMIGRAZIOA

Genero berdintasuna funtsezko printzipioa da gure elkarbizitzarako, milioika emakumeen borrokarekin lortu dena. Diskriminazio sexista mundu mailako errealitatea da, eta diskriminazio horren kontrako borroka ere mundu mailakoa da.

Badaude sendotasunez erroteriko estereotipoak otzantasuna emakumezko etorkinekin lotzen dutenak, haien gaitasun ekintzailea ukatuta eta errealitate desberdinak sinplifikatuta. Immigrazio femeninoa zaintzaren sistema formal eta informälaren oinarri bihurtu da, gure jendarte gizon eta emakumeen artean konpondu gabe dagoen gatazka bat tarteko: bizitza familiarren eta lanaren kontziliazioa. Kontziliaziorako lan eta gizarte politikek euskal emakume guztien, bertakoen zein etorkinen, eskubideen alde egin behar dute.




INTEGRAZIO – TXERTAKETA IKUSPEGIA

Pertsona guztiok daukagu gizatasun oinarri berbera, nahi, ideal eta esperientzia unibertsalekin bat egitera eramaten gaituena. Bizibidea duintasunez ateratzea, maite ditugun pertsonekin bizi ahal izatea, gure komunitateen ongizateari eta garapenari ardu-raz laguntzea, gure bizitzari eragiten dioten prozesuen gainean erabakitzeke gaitasuna izatea, autonomia eta gurekiko begirunea izatea... horiek betetzen direnean, jendarte jakin bateko erabateko kideak garela senti dezakegu.

Integrazioa jendarte honetan bizi garen guztion arteko egokitzen prozesua da, dinamikoa eta aldebikoa; ondorioz, elkarri egokitzeke ahalgaitasuna eskatzen du, etorkinen nahiz bertakoen aldetik.

TOKI ESPARRUAREN ETA EGUNEROKO INTEGRAZIOAREN GARRANTZIA

Integrazioa, kohesio soziala eta elkarbizitza toki esparruan gauzatzen dira. Hori dela eta, kultura arteko elkarbizitza bultzatzeko udalerrien lanak berebiziko garrantzia dauka.





HEZKUNTZA INKLUSIBOA

Eskolan hezten da herritartasunerako, eta funtsezkoa da etorkinen seme-alabak egokitzeak eta gurasoek elkar topatzeko.

Garrantzitsua da hezkuntzak migrazioen arrazioen gaineko ezagutza ahalbidetzea, hala nola estereotipoen kontrako heziketa eta eguneroko egoeren eta hedabideetako testuen azterketa kritikoa. Kultura arteko hezkuntza jendarte plural batean bizitzeko gaitasunen garapenean datza.

Jendarte hartzaileetako hizkuntzen ikaskuntzak garrantzi handia dauka etorkinen egokitzapenean. Euskal jendartearen egoera soziolinguistikoa konplexua da. Bi hizkuntza ofizial badaude ere, jendarte honetan ahalegin handia egin da, eta egiten ari da, euskararen normalizazioa erdiesteko. Euskal jendartearen eginbeharra da hona ailegatzen diren pertsonen hizkuntza bien ikaskuntza eta erabilera ahalbidetzea. Era berean, aitortu eta aintzat hartu behar ditugu beste herrialde batetik etortzen diren pertsonen ezagutzen eta erabiltzen dituzten hizkuntzak.



NARRATIBEN ETA DISKURTSOEN FUNTSEZKO GARRANTZIA

Immigrazioaren arloak bereziki jasaten ditu aurreiritziak eta estereotipoak. Itun hau sinatzeak immigrazioaren inguruko diskurtso iraintzaile guztiak aktiboki errefusatzeko konpromisoa dakar, gehiegizko aurreiritziaren eta orokortzearen gainean eraikiak dauden heinean.

Bereziki garrantzitsua da eragile politikoen artean ahalik eta adostasun handiena lortzea agiri honetan jasotako oinarritzko printzipioen inguruan, hauteskondeekin loturiko abaguneek ez dezaten eraginik izan immigrazio eta integrazio politiketan.

ZAILTASUNEI MODU POSITIBOAN AURRE EGITEA ETA ETORKIZUNARI ITXAROPENTSU BEGIRATZEA

Immigrazioa eta aniztasuna aukera izan behar dira nahi dugun euskal jendarte berriz pentsa dezagun kolektiboki. Gaur geure egiten ditugun konpromisoekin asmatzen badugu, etorkizun hoberako oinarriak jartzen ariko gara.



IMMIGRAZIOAREN ETA ELKARBIZITZAREN AGENDA ESTRATEGIKOA. ERMUA 2014

Immigrazioaren eta elkarbizitzaren arloan toki mailako politika garatzen 10 urtetik gorako ibilbidean metaturiko eskarmentuak eta gure jendarteak aurre egin beharreko aldaketa sozial eta ekonomiko etengabeak behartu egiten gaituzte etorkizuneko erronkak modu parte-hartzaileagoan eta adostuagoan birbideratzera.

2012ko maiatzean, Immigrazioaren aldeko Itun sozialaren toki mailako hedapenari ekin zitzaion Er-muan. EAEko lehen udalerrria izan zen jendarteratzeko eta herriko eragileen artean zabaltzeko eki-mena izan zuena, eta herritarren partaidetza prozesu baten hasiera ekarri zuen, Immigrazioaren eta Elkarbizitzaren Agenda Estrategikoa 2014-ren ikerketa eta lanketari lotu zitzaiona.

Agendak, funtsezko 4 ardatz estrategikotan, arlo honetan udal jarduketa bat garatzeko orduan Ermuko herritarrek planteatzen dituzten beharrak eta eskariak biltzen ditu, eta urteroko proiektuak-emaitzak eran oinarrituriko egitura proposatzen du, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuko diru-horniduraren arabera.

Ardatz estrategikoak:

1

PARTE-HARTZE
KOMUNITARIOA

2

GENERO
BERDINTASUNA

3

GAZTE ETA
HELDUEN
HEZKUNTZA

4

HERRITARTA-
SUNERAKO
ITZULERA